# COVID-19aren aurrean egungo neurriak

**Maskara erabiltzeko derrigortasuna.** Erabilera publikoko edozein espazio itxitan eta kanpoaldean. Ez da eskatuko kanpoan banakako kirola egiten den bitartean, ezta naturguneetan ere; nolanahi ere, 1,5 metroko gutxieneko distantzia mantenduko da elkarrekin bizi ez diren pertsonen artean.

**Ordutegiak.** Kultura-, gizarte- eta merkataritza-jarduerak etetea eta bai eta ostalaritza- eta jatetxe-establezimenduak ixtea ere, 01:00etan. Garraio publikoek gehienez 02:00etan irten beharko dute. 2022ko urtarrilaren 1ean eta 6an, merkataritza-, ostalaritza- eta jatetxe-establezimenduak ezin izango dira 08:00ak baino lehen ireki jendearentzat.

**Edukierak.** 2022ko urtarrilaren 28ra arte, edukiera %60koa mota guztietako establezimenduetan eta barne-eremuetan.

**Publikoa ekitaldietan.** Gehienez 600 pertsona barruan eta 800 kanpoaldeetan. 1.600 eta 5.000 arteko esparruetan, 800 barruan eta 1.200 kanpoan. 5.000 baino gehiagoko esparruetan, gehieneko edukiera %50ekoa izango da, ezertan galarazi gabe estatu osorako ezarritako beste muga bat aplikatu behar izatea.

**Ostalaritza eta gaueko aisia.** Itxiera 01:00etan. Debekatuta dago zutik kontsumitzea. Mahai bakoitzean, gehienez 10 pertsona. Mahaien arteko distantzia: 1,5 m. Nahitaezkoa da maskara erabiltzea, irensteko unean izan ezik.

**Txokoak.** Itxiera 01:00etan. Debekatuta zutik kontsumitzea. Mahai bakoitzean, gehienez 10 pertsona. Mahaien arteko distantzia: 1,5 m. Nahitaezkoa maskara erabiltzea, irensteko unean izan ezik.

**Gazteen lonjak eta lokalak.** Itxiera 01:00etan. Debekatuta dago zutik kontsumitzea. Mahai bakoitzean, gehienez 10 pertsona. Mahaien arteko distantzia: 1,5 m. Nahitaezkoa maskara erabiltzea, irensten denean izan ezik.

**Kirola.** Barneko instalazioetan, gehienez 10eko taldeak. Aldagelak %50ean erabili ahal izango dira.

**Covid ziurtagiria.** Nahitaez aurkeztu behar da kultura-ekitaldietan, ostalaritzan, jatetxeetan edo gaueko aisialdiko establezimenduetan, kirol-instalazioetan eta ospitaleetan, zentro soziosanitarioetan eta espetxeetan.

**Prebentzio-jarrerak**

- Gabonetako bazkarietan eta afarietan, gehienez hamar pertsona eta bi familia-unitate.
- Barrualdeak etengabe aireztatzea.
- Pertsonen arteko distantzia.
- Eskuen eta gainazalen higienea.
- Jende pilaketak saihestea.
- Txertaketan parte hartzea.

## Osasuna lehenesteko garaia da

# *Medidas en vigor frente a la COVID-19*

***Uso obligatorio de mascarillas.*** *En cualquier espacio cerrado de uso público y en exteriores. No será exigible en el exterior durante la práctica de deporte individual ni en espacios naturales, manteniendo, en todo caso, la distancia mínima de 1,5 metros entre personas no convivientes.*

***Horarios.*** *Cese de actividades culturales, sociales y comerciales y cierre de establecimientos de hostelería y restauración a las 01:00h. El transporte público tendrá como horario máximo de salida las 02:00h. Los días 1 y 6 de enero de 2022 la apertura al público de establecimientos comerciales y de hostelería y restauración, no podrá realizarse antes de las 08:00h.*

***Aforos.*** *Hasta el 28 de enero de 2022, limitación de aforos del 60% en todo tipo de establecimientos y recintos interiores.*

***Público en eventos.*** *Máximo en interiores de 600 y de 800 en exteriores. En recintos de entre 1.600 y 5.000, en interiores 800 y 1.200 en exteriores. En recintos de más de 5.000, el aforo máximo es del 50% sin perjuicio de que sea de aplicación otro límite determinado en el ámbito estatal.*

***Hostelería y ocio nocturno.*** *Cierre a las 01:00h. Prohibido el consumo de pie. En cada mesa, máximo 10 personas. Distancia entre mesas de 1,5 m. Mascarilla obligatoria salvo en el momento de la ingesta.*

***Txokos.*** *Cierre a las 01:00h. Prohibido consumo de pie. En cada mesa, máximo 10 personas. Distancia entre mesas de 1,5 m. Mascarilla obligatoria salvo en el momento de la ingesta.*

***Lonjas y locales juveniles.*** *Cierre a las 01:00h. Prohibido consumo de pie. En cada mesa, máximo 10 personas. Distancia entre mesas de 1,5 m. Mascarilla obligatoria salvo en momentos de ingesta.*

***Práctica deportiva.*** *En instalaciones interiores, grupos con un máximo de 10. Uso de vestuarios al 50%.*

***Certificado Covid.*** *Su presentación es obligatoria en eventos culturales, establecimientos de hostelería, restauración u ocio nocturno, instalaciones deportivas y centros hospitalarios, sociosanitarios y penitenciarios.*

***Actitudes preventivas***

- *En comidas y cenas navideñas, no superar un máximo de diez personas y de dos unidades familiares.*
- *Ventilación constante de interiores.*
- *Distancia interpersonal.*
- *Higiene de manos y superficies.*
- *Evitar aglomeraciones.*
- *Participar en la vacunación.*

## *Máxima prevención al servicio de la salud*

*Euskadi, auzolana, bien común*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO